


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko irailaren 9a / IV. urtea / 143. zenbakia

Kameraren atzean

Kameraren atzean egoten ohi dira argazkilariak. Gaur, berriz, lan tresna alde batera utzi eta aurrean jarri dira argazkilar horietako lau. Errebelatzeko erabiltzen duten gela ilunetik atera eta egunkarietako orriak hornitzen dituzten profesional hauek euren esperientzia kontatu dute 'Nafarkaria-n'. 'Diario de Noticias', 'Egin', 'Efe' eta 'El Pais' eta 'Deia-ko' lau argazkilar hauek urteak daramatzate lanean eta gaur art, errutinaren zamapean erortzeko astirik ere izan dute. Hala ere, maite duten lana egiten dute eta prentsaurrekoez gain, lanean edo lanetik kanpo, bestelakoak egiteko aukerarik ere badute. Argazki kamera dute lagun eta botoia sakatuz aurrean duten guztia irudi bihurtzen dute.



Begi itxi-irekia

MATIAS MUJICA

Libera me, Domine...

Urralburu, Txoriburu' izaten zen garai bateko manifestanteen errezo ritmikoa. Artaburu bariantea ere bazen, eta bukaera horrek beste mila aukera aberats ematen zituen, haien imajinario eskasak galtzera utziak. Hantxe egongo zitzairen begira gizona, erraz da imajinatzen, leihoren bateko bisiloen atzetik, eta ez batere asaldataua, nik uste, are irria ezpainetan zuela segur asko, zeren bazekien etsaiagandik apenas espera

daitekeela iraina besterik, baina etsai hori sloganazale haiek bezala eskasa eta ahula delarik, irri egiteko kontua dela.

Orain, ordea, besterik da: oraingoek ez dute errima jostagarriekin galtzen denbora, ez dira denborapasako txistetan aritzen; peligrasoak dira eta haiekin juntatzen denean zuzenean begiratzen diote begien arteko puntu imajinatu batera, bala kokatu beharreko tokira. Hauek azkar askoak dira eta ez zaizkio nolnahi atertuko era-



soan.

Oraino baditu lagun (adiskide?) zenbait aldamenean, zeinek su handiz eta itxuraz behintzat on-beharrez haren aldeko deklarazioak egiten dituzten, ia aitorten kiratsa darianik. Haiek entzutean erraz da berriro imajinatzen gizona, nola azken globulo gorriak ihes egiten dion aurpegitik, nola goibeltzen zaion adimena pentsatzean zenbait lagun mila etsai adina badirela, eta adiskidantza ongi gauza hutsala dela

jendaurreko bizitza aukeratu duenarentzat.

Agian, hil hurren diren batzuei gertatzen zaiena gertatuko zaio: denboran atzera hasten direla, eta joandako bizitzaren irudiak heldu zaizkiela samaldan begietara; agian gogoratuko zaizkio defuntuen ofizioko hitzak, denbora batean maiz adituak, eta aditzen zituen hizkuntzan gogoratu ere, latina utzi eta tekno-jarioak ikasten hasi baino lehenagokoak: Libera me Domine de ore leonis.

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Beatriz Martinez Errioxako margolariaren erakusketa zabalik dago ostegunaz geroztik Tafallako Erakusketa aretoan, kultur patronatuak antolatuta. Hilaren 14a bitartean egongo dira ikusgai koadroak.

Artisautza erakusketa ikusgai dago Zangozako Bandres aretoan. Hilaren 18ra arte egongo da zabalik, eta ikusi nahi duenak astelehenetik larunbatera izango du aukera. Ordu-tegiari dagokionez, egunero arratsaldeko zazpiak eta bederatziak bitartean zabalduko ditu atea erakusketak.

ANTZERKIA

'Celos del aire' izeneko antzezlanaren taularatuko du Viento taldeak gaur ostirala, hilak 9, Altsasun. Uda osoan antolatu dituzten ekitaldi kulturalen artean kokatua, gaueko 22.30etan hasiko da, Foru Enparantzan.

Kollins Klown antzerki taldeak 'Bienvenidos al Oeste' izeneko lana taularatuko du igande honetan, irailak 11, Mutiloabeiti herrian. Mozorro Berri programaren barruan, 20.00etan hasiko da, herriko igerilekuan.

'Parasitum' kale-antzerki ikusgai izanen da gaur, irailak 9, Antsoainen, gaueko 22.00etatik aurrera. Antzerkia, musika eta piroteknia nahasiz, gau-ikuskitan berezia antolatu dute Iruñerriko udalak.

BERTSO SAIOAK

Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa izanen da gaur, irailak 9, Oitzen. Jai Bartzordeak bertso-bazkari moduan antolaturik, eguerdiko 14.00etan hasiko da.

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira heldu den asteazkenean, irailak 14, Etxarri-Larraun herrian. Bertako jaiak direla eta, herri bazkaria antolatu dute bi bertsolari hauekin, eguerdiko 14.00etatik aurrera.

BESTELAKOAK

Iruña Big-Band musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar Altsasun, udarako antolatu dituzten ekitaldien artean. Gaueko 22.30etan hasiko da, Foru Enparantzan. Igandean, berriz, bertako musikaren jaialdia izanen da arratsaldeko 20.00etatik aurrera, leku berean.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO


Ostruka

Sailkapenak arakatzeko nituen Gerbert Karstens-ek sprintean Guido Reybroeck-i irabazi ote zion jakiteko. Dena den, Walter Goodefrot bien gainera zegoen. Marino Basso zitekeen horietako edozeini aurre egiten ahal zion bakarrenetakoa. Behin ikusi nuen Van Springel

Urte hartan, 'Rokado' taldearekin korritzen zuen. Nire idoloa hain eroria ikusteak ez zidan ilusioa kendu; alderantziz, Herman Van Springel maitakorragoa egin zitzaidan. Azken finean, gizona baino ez zen. Gero Merckx-en morroi joan zen Molteni-ra, eta hala ere, morrontza eta guzti,

go sua pizten. Eta, batez ere, txapelkun handien balentriak kantatzen dituztenen erreperitorioak nazkatzen, aspertzen eta nekatzen naute, berdin zaidalarik 'El español', 'El vasco' o 'El navarro-ren' loriak goratzeko erabiltzen diren.

Gauzak honela, beste ezer



gel Etxauriko malda igotzen. Auskalo zergatik, Van Springel zen nire idoloetako bat, Perez Frances-ekin batera. 68ko Tour-a azken erlojupekoan galdu zuen, Janssens-en aurka. Honek 18 segundu kendu zizkion azken sailkapen orokorrean. Merckx etortzeaz zegoen; ziklistak ez ziren oraindik zibernetikaren semeak. Van Springel-ek pena ematen zuen Etxauriko gaina harrapatu nahian ikusi nuen hartan, Lee Marvin bestondoarekin ematen zuen.


seigarren egin zuen orokorrean Tour-ean, eta maillot berdea eraman. Jada egiten ez den 800 bat kilometroko maratoni hartan (Paris-Burdeos?) ez zuen kontrakorik.

Ondoren etorri ziren Merckx ('El Canibal'), Ocaña ('El español de Mont de Marsan'), Hinault ('El caiman'). Askoz beranduago Itsaski Lejarreta ('El Junco de Berriz') eta Julen Gorospe ('El de Mañaria'). Urte asko dira musika berbera entzuten, eta ziklismoak jada ez dit lehen-

ez eta ezinena opa ahal diot gure noria-errekorman handiari: ostruka. Bidezkoa da, Zizurren ostrukak hazitzen diren eta Erresuma euren erantzunkizunak trebeki izkutitzen dituzten L.R., G.U., A.A. eta beste bete den honetan.

Etxabarriren meriturik handiena, Bordeleko belodromoko marra beltz famatu horren zabalera egokiarekin asmatu zuela; zabalagoa egitera, beharbada, ostrukaren buruak ez zuen eta, kabituko.

ASTEKO PERTSONAIAK



Javier Otano
PSNko burua

Javier Otano sozialista nafarren burua Juan Cruz Alli lehendakariarekin bildu zen joan den asteartean Iruñeko Diputazioko Jauregian. UPNk Gabriel Urralburu eta Antonio Aragonen ondarea ikertzea erabaki izanak erabat baldintzatu zuen bilera. Hain zuzen ere, erabaki horrek PSN alderdiaren haserre gogorra piztu du eta Javier Otanok zalantzan jarri du bi alderdien arteko lankidetzak. Javier Otanoren hitzetan, «zenbait alderdiren nahia ez da gauzak argitzea, PSN ikusmiran jartzea baizik, ahal baldin badute hauteskunde kanpaina hasi arte». Javier Otanok ere, «UPNk Del Burgo eta Bados bezalako jendea kanporatzen ez duen bitartean, Alliren hitzek baliorik ez» dutela erran zuen.



Eduardo Gil Bera
Idazlea

Aste honetan eman dituzte Euskadi sariaren irabazleak, eta hara, gaztelaniazko Miguel Unamuno deritzona Eduardo Gil Bera idazle nafarrari eman diote. Elgorriagako semeak 'El carro de heno' izenburuko saiakera lana idatzi du oraingo honetan, lehen saria eskuratu duena, alegia. Julia Ochoa epaimahaiko kideak azaldu duenez, «egungo gizarte eta pentsamenduaren ikuspegi modernoa» eskaintzen du lan horrek. Gil Bera sari franko eskuratuta dago saiakera arloan, besteak beste 'O tempora! O mores!', 'Fisikaz honatago' eta —azkena— 'L'Allegrie de Ungaretti' lanei esker. Aipatu beharra dago, gainera, bertze genero batzuk ere landu dituela, konparazio batera ipuingintza eta itzulpegiak.

AHAZTU GABE!

JAIK

Azoko Eguna ospatuko da igande honetan, irailak 11, Arian. Festa handia igandean bada ere, gaur eta biharko antolatu dituzte zenbait ekitaldi. Gaur gauean 'Amalur' filmea eskainiko dute, eta bihar gaueko 23.00etatik aurrera Nahi Ta Nahi Ez taldearen kontzertua izanen da, Arian biak. Igandean, goizeko hamarretan Irati eta Ansooko Bortuen inguruko gazta txapelketa irekiko da. Aldi berean, eskulangileen puestoak jarriko dituzte, Euskal Herri guztiko harginak, zeramikagileak, larrua eta zura lantzen dutenak etorriko direla. Meza hamaiketan, eta eguerdian eguneko ekitaldi nagusia izanen da, abeslari eta dantzariekin. Herri bazkariaren ostean txapelketako sariak banatuko dira eta kantuan ariko dira Jon Bergaretxe, Irigoien Anaiak eta Erramun Martikorena. 17.30etan haurrentako antzerdia dago Txirrista taldearekin. Ardatza orkestraren dantzaldiarekin amaituko da aurtengo Aezkoako Eguna.

jenero xumekoak

Berdinketak (II)

Gatazkatik alde egiten duena ere harrapatzen du Herioak.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainera' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...


Nekazari Eguna igandean

LEKUNBERRI

Nekazari Egunaren V. edizioa ospatuko da igande honetan Lekunberrin. Aurtengo saioan bada berrikuntzarik, ardi latxa muturgorrien lehiaketa antolatu baitute edizio honetarako. Honekin batera, eta ohiturari jarraituz, behi frisiarren lehiaketa (Nafarroan egiten den bakarra) eta Aurizko zaldiena ere izanen dira. Aurtego Nekazari Eguna Lekunberriko pilotalekuaren ondoan izango da, Mariano Irañetarena den Zapateña zelaietan hain zuzen.

Lehiaketako azientaren aurkezpena eta desfilea goizeko 11.00etan hasiko da hiru azienta motentzat, bata bestearen atzetik. Epaileak honako hauek izango dira: Jose Ramon Badiola CONAFEko epaile nazionala, Claude Fabre Biarnoko zaldi astunen arraza zaintzen dutenen sindikatuburua, Jesus Mari Lasarte ITGVko albaitea eta Candido Ziganda abeltzaina.

Behi frisiarren lehiaketan hiru sari mota izanen dira: bigak, behi gazte esnedunak eta behi heldu esnedunak. Atal bakoitzeko bi behi edo bigaren artean aterako da txapelduna. 'Lekunberri 94-ko' Txapeldun Nagusia biga txapelduna, behi gazte txapelduna eta behi heldu txapeldunen artean aterako da. 'Lekunberri 94-ko' Errape Ederrena ere sari-



Lehiaketa ugari antolatu dira iganderako.

tuko da, behi-azienda guztiak parte har dezaketelarik. Honez gain, esne gehien eman duten behiak ere sarituko dira.

Aurizko zaldi-azientaren lehiaketan lau sari izanen dira: zaldikoak, behokak, behorrak eta garainoa. Ardi-azienda latxa muturgorriaren lehiaketa berrian, berri, urtebeteko axuri lotea, ardi lotea, urtebeteko aharia eta urtebete baino gehiagoko aharia sarituko dira. Nafarroako

eskualde guztietako abeltzainak bilduko dira igandean Lekunberrin, bi urtetik behin antolatzen den egun berezi honetan.

Lehiaketaz aparte inguruetako gaztagile, elikagi saltzaile, artisauek eta nekazaritzako lanabes eta makineria banatzaileak bertaratu dira. Eguerdiko ordu bi t'erdietan bazkariaren ostean Xanti Begiristain trikitilaria ariko da, Andoni Egaña eta Jon Lopategi bertsolariekin batera.

Altsasu

Neska-mutikoak bizikloz ibiltzen ikasten ari dira

AMAIA AMILIBIA / ALTSASU

Txirrindularen Museokoek festen azken egunerako antolatu duten zinta lasterka bizikloz izanen denez, Altsasuko zortzi eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoak hasi dira bizikloz ibiltzen ikasten, herriko Foru Enparantzan. «Hurrek esku bakar batekin ibiltzeko gai izan behar dute lasterketan zintak hartzen saiatzeko», dio Juan Jose Eizagirre Txirrindularen Museoko lehendakariak.

Bizikloak baditu txirrindulariaren artean aldean zenbait berezitasun. Aurreko gorpila atzekoa baino handiagoa da eta ez du frenorik, ez katerik. Pedalak aurreko gorpulean datoz eta norabidea aldatzean pedalak ere mugitu egiten dira. Karrera baino lehen partaideak berezitasun horietara ohitzea da egun hauetako frogan helburua.

Altsasuko jaietarako ia dena prest dago. Txirrindularen Museoak eskatuta, Razesa eta Letona txirrindulari etxeetan hogeita bost biziklo egiten ari dira. Festetako zinta lasterketaren ostean zofiz egingo dira, batzuk parte-hartzaileen artean eta beste batzuk ehun pezetan salduko diren txartelak erosten dituztenen artean. Osotara bost lasterketa izanen dira hilaren 17an, adin bakoitzarentzat bat, eta sari ugari banatuko dira parte-hartzaileen artean.



bakarra, ez eta eragilerik garrantzitsuena ere. Neuk ere ohi-keriara itzuli behar izateak goibeltzen nau benetan.

Bukatu dira herrietako jaiak, jaixak, festak, bestak eta pestak. Kalimotxoaren bide luzearen azken geltokira heltzeaz gaude. Zizur Nagusiko jaiak gozatu, eta akabo, fini, kitto. Sanfermin txikitoen eskutik —egia esateko, modu ezin gozoagoan— Alde Zaharreko errutinara itzuliko gara. Heldu den ikasturterarte ez gara Navarriako iturritik gehiago urrunduko. Agian, zorte apur batekin, baldin eta Iruñerriko euskaltegiren batekin herriko pilotalekuan gau-pasa antolatzen badu, txangoren bat egingen dugu, besterik ez.

Bai, jakin badakit aspaldiko lagunak berriro ere topatuko ditudala; badakit, halaber, lagun berriak egingen ditudala, eta horretaz gain zerbitzari berri eta jatorragoak ere izanen direla, baina, ama, ez dut ikastolara, barkatu, Alde Zaharrera itzuli nahi!

Garruze

Ehunka hazle bildu ziren Garruzen departamenduko behi lehiaketan

LUTXI FOURCADE / GARRUZE

Nahiz eta urtero bi leku desberdinetan antolatzen diren departamenduko behi lehiaketak, lehen aldikotz Garruzeko plazan elkartu ziren bi lehiaketa horiek joan den igandean. Bildutako hazleek ekarri zuten kabalea epai mahaiaren aitzinean desfilitatu ondoren, sariak erabaki ziren, eta lehen saria atera dutenek Parisko Lehiaketa Nazionalan parte hartuko dute.

Garruzeko eta Amikuzeko biztanleak kopuru handian bildutako behi lehiaketa antolatu da. Lehen aldikotz bilduz esnetako eta haragitako behiak.

Joan den urtean, Baionan haragitako behien lehiaketa egin zuten; esne-behiena, aldiz, Morlannen, Biarno aldean egin zuten. Garruzen egin bada ere aurtentzen, ez zela denen gustukoa nabari zen, eta datorren urteko lekua ez zegoela oraindik finkatua adierazi zuten antolatzaileek. Biarnesek beraien herrian atxiki nahian, beste batzuk Garruzen egiteko asmoa azaldu zuten. Hurrengoetarako, baliteke eguna aldizka ospatzea toki batean edo bestean.

Nolanahi dela ere, aurtentzen goizetik behiak ageri ziren Garruzeko plazan, lehiaketa hasi baino lehen. Gauzak ongi prestatu zituzten hazleek: behiak garbitu, ileak motz-motza moztu, buztanak apaindu... Ahalbait ederrenak izan behar zuten behiek epaimahainaren aurretik pasatzeko. Erran behar da behi anitz bazirela lehiaketan parte hartze-

ko, eta zorte guztiak ukaiteko hobe zen gauzak ongi egin. Hala, agertu ziren 200 haragi-behi eta 150 esne-behi, zaldi eta ardi batzuk bazterretan aurkitzen zirela.

Egindako hiru itxituretan ibili dira behiak multzokan; hazleak sokarekin atxikitzen zuela bere behia. Burua gora, lasaiki biribilaren itzulia egiten, behiaren ibilmoldea ere garrantzitsua zen. Hazleak ere finkatutako jantziak zituen soinean, kamiseta xuria eta galtza urdina.

Lehiaketak egun osoa iraun zuen, sari franko banatu baitzen. Behia, biga, bigantxa, zezen, zezengai, esnedun, esnegabeko, zahar ala gazte, behi guztiak saria eskuratzeko parada zuten berre sailean. Luzeegi dateke sariaren zerrenda ematea, baina nola ahanztarizatuak izan ez diren hazleen liluragaltzea, lehiaketa benetan oso garrantzitsua baita haietentzat.

Duela lau urte sare publikora sartu ziren ikastoletako hamairu irakasle lanposturik gabe gelditu dira, Nafarroako Gobernuak ez baitu Ikastolen Elkartearekin hitzartu zuen akordioa bete. Gobernuak izenpetu zuen hitzarmena ilegala zen nonbait, akordioan oposaketa murriztuak egiteko konpromezua hartu baitzuen, kontuan izan gabe bi egun lehenago legez kanpo utzi zituela era honetako lehiaketak.

Hitzarmen xelebren baten kronika

A. UNANUE / IRUNEA

Nafarroako zenbait ikastola txiki sare publikoan sartzeko hitzarmena 1990eko uztailan sinatu zuten garai hartan Nafarroako Gobernuak lehendakari zen Gabriel Urralburu sozialistak eta Txomin Izko Nafarroako Ikastolen Elkarteko buruak. Sare publikora pasatzeko ekimena ez zen denen gogoko, baina ikastola txikiak diruz itota zeuden eta hala egitea erabaki zen haien jarraipena ziurtatzearen.

Ikastoletako irakasleei bi urteko kontratua egin zieten eta epe horretan oposaketa murriztuak ateratzeko konpromezua hartu zuen Gobernuak. Agindutako oposaketak ez ziren egin, ordea, ikastolak sare publikora sartzeko akordioa izenpetu baino bi egun lehenago Gobernuak ilegaltzat jo zituelako oposaketa murriztuak. Gobernuak berak ateratako ebazpenak zioen aurrerantzean oposaketa murriztu gehiago ez zela egingo. Irakasleek bi urteak pasatuta izan zuten horren berri.

Bien bitartean, beste urtebeteko luzatu zieten kontratua. Garai hartan izan ziren bileretan oposaketa normaletara aurkezteko eskaintza egin zieten Gobernuak ordezkariak irakasleei, denek gaituztuta hitz emanda. Irakasleek ez zuten onartu, Mikel Ilarregi irakaslearen arabera «ez genuelako honelako tranpetan sartu nahi, eta sinatutako akordia betetzeko eskatu genien behin berriro».

Gauzak okertzen ari zirela ikustean, Nafarroako Gobernuak auzitara eramatea erabaki zuten irakasleek, abokatuak aholkatuta. Hori 1992. urtean izan zen. Gobernuaren kontrako epaiketan zera argudiatu zuten irakasleek, langileen estatutuan oinarrituta, ikastolak absorzioz sartu zirela sare publikoan eta, ondorioz, ikastoletako langileek enpresa berrian egoera berdinean —hau da, behin-betiko kontratuarekin— egoteko eskubidea zutela.

Zazpi hilabete geroago ateratu zuten epaia irakasleen aldekoa izan zen, baina Gobernuak ez zuen epailearen erabakia onartu, Ja-

vier Markotegi Hezkuntza sailburuak aurretik hala agindu bazuen ere, eta errekurtsioa jarri zuten Nafarroako Epaitegi Gorenean. Honen epaia Gobernuaren aldekoa izan zen.

Hala ere, iragan uztailan kontratuak beste urtebete luzatuko zituela agindu zien Gobernuak. Gauzak honela, irakasleak lasai zeuden, auzia konpondu bitartean euren postuetan jarraituko zutelakoan. Ezustea joan zen astean eduki zuten, beren postuak lehiaketara ateratu zituztela eta dagoeneko hartuta daudela ikustean. Ilarregik esan digunez, «kasualitate hutsez jakin genuen, gutako bat Iruñera joan eta zerradak ikusi zituelako. Iruditzen zait gure erantzun ahalmena mugatzeko jokatu dutela jokatu duten moduan, auzia denboraz irabazteko edo».

Denetara hamahiru irakasle gelditu dira lanposturik gabe, bost Leitzañ, bi Agoitzen eta baina Lekunberrin, Etxalarren, Auritzen, Aurizberrin, Irurtzunen eta Otsagin. Hasiaren hamazazpi ziren, baina horietako bost oposaketa egin zituzten.

Irakasleek kasazio errekurtsioa jarri dute, orain arteko bi epaiak Madrilen azter ditzaten eta behin-betiko erabakia har dezaten. «Behin-betiko epaia jaso bitartean geure postuetan jarraitzea eskatzen dugu. Hori da gure aldarrikapen bakarra», dio Ilarregik.

Egoera gogorra da, batez ere herri txikietan, hauetan zailagoa baita jendea mugiaraztea. Zenbait irakasleek hogeita hamar urte baino gehiago eman dituzte irakaskuntzan, lehenengo ikastolan eta gero eskola publikoan, eta bat-batean posturik gabe gelditu dira, posturik gabe eta bakardadean.

Leitzañ gutxienez eskolako gurasoen eta herritar askoren elkartasun adierazpenak jaso dituzte kanporatutako irakasleek. Ordubeten 550 sinadura bildu zituzten kanporatutako irakasleen alde eta astelehenean manifestaldi jendetsua egin zuten herrian barna. Horrez gain, Gurasoen Elkarteak eta Eskola



Leitzañ egindako manifestaldian lauhun lagun inguru bildu ziren. ARANTXA IPARRA

Kontseiluak idatzi bana bidali dute Hezkuntza Sailera, konponbide eske. Leitzañ alkatearen aldetik, berriz, ez omen dute hain erantzun ona izan. Premiazko batzar bat egitea eskatu zioten gaia aztertzeko, baina ez zuten onartu eta batzarra egin behar orain arte atera diren epaiei buruz txosten bat prestatzeko agindu zion Udaleko idazkariari.



Arduradunen erantzuna, eskasa

A.U. / IRUNEA

■ Nafarroako Gobernuaren aldetik behar bezalako erantzunik ez dutela jaso diote kanporatutako irakasleek.

Leitzañko eskolako gurasok Hezkuntza Saileko arduradunekin hitz egiteko ahaleginak egin dituzte. Iruñera ere etorri ziren asmo horrekin, baina Markotegi sailburua oso lanpetuta zegoela eta aste honetan deituko zituela esan zieten. Oraindik esperoan daude, irakasleak bezala.

Herri Batasunak, bestalde, Markotegik Parlamentuan azalpenak eman ditzan eskatu zuten astelehenean.

Mikel Ilarregiren ustez, Union

del Pueblo Navarro-ri borondate politikoa falta zaio alderdi sozialistak hain modu xelebren izenpetu zuen hitzarmena betetzeko: «PSOE hitzarmen ilegala bat sinatu zuen, Gobernuak uzteko zorian zegoenean gainera, eta orain UPN argudio horretaz baliatzen da arazoa ez konpontzeko. Esaten digute hori sozialistek izenpetu zutela, legearen kontrakoa dela eta kito. Ez dituzte beren gain hartu nahi aurreko gobernuaren erantzukizunak, guk behintzat ez diegu inolako borondate politikorik ikusten». Nekez uler liteke bestela nola jokatu duen: uztailan beren postuetan jarraituko zutela agindu eta irailean postu horietan

lehiaketara ateratu, alde aurretik abisatu gabe.

Duela lau urte hitzarmena sinatu zuten sozialistak dagoeneko ez daude Gobernuan eta gauza bera gertatzen da Nafarroako Ikastolen Elkartean. Garai hartako arduradunak euren karguak utzi zituzten eta Ikastolen Elkartek, Ilarregiren ustez, ez du gaiaren segimendurik egin, ez behintzat egoerak eskatzen zuten moduan.

«Behin baino gehiagotan eskatu diegu laguntza Ikastolen Elkarteari, baina erantzun eskasa jaso dugu. Harremanak ez dira oso egokiak izan eta gure ustez ez dute behar bezala erantzun», dio kanporatutako irakasleak.

«Agur esateko garaia heldu da»



Auto gidaritza utziko du Pantxo Egozkuek.

JOXE LACALLE

J.K.L./IRUNEA

EGUNKARIA.— Esaera zaharrak hirurik gabeko birik ez dagoela dioten arren, badirudi zu, jarraian Europako bi txapel lortu ostean, ez zarela hirugarrena lortzen saiatuko.

PANTXO EGOZKUE.— Ene irudikoz, gidatzeari agur esateko garaia heldu zait. Batetik, mendi igoeran oso zaila da babesleak topatzea, eta bestetik nire familiarekin denbora gehiago emateko irrikitan nago. Dena dela, egun babesle batekin tratuan nabil, eta akordioa lortuko bagenu, aurrera segituko nuke. Dena dela, une honetan nik heldu den urtean lehiaketan parte hartzea ezinezkoa dela esanen nuke.

EGUNKARIA.— Ez da erraz ulertzen Europako gidaririk hobereak babeslerik ez topatzea. Zer huts egiten du?

EGOZKUE.— Guztiak huts egiten du, ez digute inoiz merezi duguna eman. Federazioak eta komunikabide garrantzitsuenek ez digute inoiz

merezi dugun promozioa egin. Hori gehienbat federazioaren errua dela esanen nuke nik. Komunikabideentzat oso zaila da gure lehiaketako lasterketa guztiak kubritzea, baina federazioak lan hori egin lezake, eta ez du egiten.

EGUNKARIA.— Egoera hori dela medio, sosa ez dituzu inoiz sobera izaten. Zeintzuk dira urtean zehar topatzen dituzun arazorik handienak, zer da gehien faltan botatzen dizuna?

EGOZKUE.— Gauza asko dira. Esaterako, urte osoan zehar ez daukat autoari kotxeari motorra aldatzerik, eta horregatik kontu handiz ibili behar dut. Maiatzetik gaur arte 32.000 kilometro egin ditut nire autoarekin. Bestalde, mekanikoak lagunak direlako etortzen dira nirekin, eta noski, musu truk. Nik neuk egin behar dut nire paddock-a eta nire box-a. Gurpilak ere asko zaintzen ditut dirua aurreztu ahal izateko... Gauza asko dira.

EGUNKARIA.— Hala eta guztiz

ere, aurtengo txapelketa zuretzat erraz samarra izan dela esan liteke.

EGOZKUE.— Erreza izan dela eman lezakeen arren, agian iazkoa baino zailagoa izan da. Egia esateko, aurtun momentu on asko gozatu ahal izan ditut. Lasterketa asko irabazi ditut, eta niretzat hori izugarri polita izan da, baina denboraldia ez da erraza izan. Arazorik ez dut izan, akats txiki batzuk besterik ez. Kontua zera da, gailurrera heltzen zarenean gailur horretan eustea oso zaila dela. Presioa handiagoa da, eta beraz, aurtengo lehiaketa, niretzat, iazkoa baino gogorragoa izan da. Presio hori joan den asteburuan bereziki nabaria izan zen. Lor nezakeela ikusten nuen, eta horrek izugarriko urduritasuna eragiten zidan. Gaixotuko nintzen beldur nintzen, baina azkenean guztia nahi bezain ongi atera zen.

EGUNKARIA.— Aurten, ohiko denez, Vilariño donostiarrak izan duzu aurkari amorratua. Zuek bion arteko tira-birak

kanpotik diruditen bezain gogorak al dira?

EGOZKUE.— Aurten, hasi aurretik Vilariño behin eta berri lasterketa guztiak irabaziko zituela iragarri zuen. Haa-tik, nire irudikoz Vinyes zen aurkaririk arriskutsuena. Bere autoa nirearen antzekoa zen, eta berak gaztetasuna eta dirua zuen. Vilariño eta bion arteko erlazioei dagokienez, iaz arazoak izan genituen, baina horiek bere aldetik etorri ziren. Txapelketako une jakin batean bere onetik irten zen, eta behar baino gehiago hitz egin zuen. Denbora batean ez genuen hitzik egin. Egun, berak irabazten duenean zorionak ematen dizkiot, eta aldrebes ere gauza bera gertatzen da. Dena dela, berak ez nau beti zoriontzen...

EGUNKARIA.— Itsu-itsuan 180 graduko bihurtzean ziztu bizian sartzen zarenean beldurrak hartuko dizu barrena.

EGOZKUE.— Gidari batzuek beldurrik ez dutela pasatzen esaten dute. Gezurra da, gidaririk zoroenak ere beldurra pasatzen du. Badakizu bizia jokoan dagoela. Irteeran bosgarrena sartzen duzu, 258 km/h abiadura hartzen duzu, eta autoa hondoraino behartzen duzu. Oso sentsazio fuertea da.

EGUNKARIA.— Askoren ustez, buruan zerbait gaizki eduki behar duzu, esaterako, Jaizkibel zuk igotzen duzun moduan igotzeko. Zer esanen zenieke horiei?

EGOZKUE.— Niri izugarri gustatzen zait egiten dudana. Hain zuzen ere horrek, egiten dudana maitatzeak, eraman nau lortu dudan guztia lortzera.

EGUNKARIA.— Nola sartu zen Egozkue gaztea bihurtzean?

EGOZKUE.— Txiki-txikitatik gustatu zaizkit autoak. Aitari bat eskatu nion, eta berak horretarako guztia aprobatau behar nuela esan zidan. Oso ikasle txarra nintzen, baina ikasgai guztiak gaitzitez lortu nuen. Aitak Mini 1.275 GT bat erosi zidan, eta horrekin irabazi nituen lehenbiziko lasterketak.

Pantxo Egozkue

AUTOKARRERETAKO
GIDARIA



SOSLATA

Mendietako errepideetan

«Txapela buruan ibili munduan» dioten esaera zaharrari muzin egitea erabaki du Pantxo Egozkuek, Mexikon jaiotako auto-karreretak gidari atarrabiarrak. Europako Mendi Igoera lehiaketako txapela jantzi berri duelarik, auto gidaritzari agur esatea erabaki du Egozkuek, urtero babesle bila aritzeaz nazkatutik. Jaizkibel eta Europako beste hainbat menditako errepideak ez dira gehiago atarrabiarraren eta Vilariño donostiarraren arteko norgehiagoka tira-biratsuen lekuko izanen. Lastima.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

